

**LEKEITIO.** Aldizkaria egiteaz ganera, lehiaketa bi be antolatu ditue



LORE BENGOTXEA

Hutsune komunikatiboa beteteko premia ikusten eben 16tik 26 urtera arteko gazteak dagoz proiektuan.

## ‘Zer Esana’ aldizkariak jaia antolatu dau urteurrenean

Herriko taldeen eskaintza ikusteko aukera egongo da bihar

Lore Bengotxea |

*Zer Esana* aldizkariak egun beteko jaia antolatu dau biharko, bere lehenengo urtebetetzea ospatzeko. Herriko hainbat kultur, kirol eta gazte taldek aldizkariaren konpiteari erantzun eta euren eskaintza erakutsiko dabe. Horrezaz ganera, ugari izango dira egunean zehar garatuko diran ekimenak.

Aldizkariaren atzean dagozanek gogoratu dabenez, euren zeregina ez dabe aldizkari hutsa ateratera mugatu nahi. Horren bidetik prestatu dabe biharko egitaraua. Ganera, proiektua

sortu zanetik urtebete be pasa da, eta atxakia ederra bilatu dabe Lekeitio jai zipriltzinez bustitako.

Laugarren alea atera barri dabe *Zer Esana* aldizkarian dagozan 16tik 26 urtera bitarteko gazteek. Aitor, Oibar, Gaizka, Ainhoa, Nerea eta Olaia produktua atzean dagozan izen batzuk dira, baina ez danak, kolaborazioak egiten dituenak asko dira eta.

### Hutsune komunikatiboa

Hasierako pausoak gogora ekarri ditu Aitorrek. «Herriko gazte batzuek pentsatu genduan komunikazioaren arloan hutsunea egoala Lekeitio. Asmoa zan aldizkariagaz ganera beste ekimen batzuk be aurrera ateratea; halandabe, orain arte batez be, aldizkariari gorputza emoten sartu doguz indarrak».

Oibarrek dinoanez, «gazteek gazteentzat egindako aldizkaria da *Zer Esana*». Bide batez, lantzen dituen gaiak danei interesatzen jakezala dino. «Ikusi besterik ez dago helduak be badau-

kaguzala harpidedunen artean». Atal finkoak albo batera, beti ahalegintzen ei dira alkarriketak eta mendi ibilbideak egiteko proposamenak sartzen.

Beste alde batetik, jentearen eritxia kontuan hartzen dauen aldizkaria ei da, moldatzen joan dana. Hizkuntza kontuan be egin ditue aldaketak. «Batuan idazten hasi ginan arren, bizkaierara pasatzen joan gara, hurrekoago egiten jakulako», esan dau Aitorrek.

Aldizkariaren diru iturriak hiru izan dira: bazkietza, publizitate eta igazko sanantolinetan ipinitako txosna. Bide horretatik, aurrera begirako helburuak aitatu ditue. «Harpidetza gehitu egin nahi doguz. Zenbaki bakoitzeko 300 ale ateraten dira, eta uste dogu badagoala ondio nora ailegatu».

Aldizkariagaz ganera antolatu dituen ekimenen barruan, literatura lehiaketako irabazleen izenak emongo dira ezagutzera *Zer Esana* egunaren barruan. Beste alde batetik, argazki lehiaketa bat be martxan dago.

### EGITARAUA

#### MARTXOAK 24

10:00-15:00

**Stand-ak:** Herriko kultur, kirol eta gazte taldeen stand-ak egongo dira plazan.

**Kale animazioa:** Goizean zehar ludoteka zabalduko da plazan bertan, eta Txaranga eta hankapaluak ibiliko dira.

**Irratsaio berezia:** Arrakalaren eskutik.

11:30 Literatura Lehiaketako sari banaketa.

17:00 Herri kirolak Independentzia plazan.

19:00 Bertsolariak. Ostein Triki-Poteoa.

21:45 Lekeitioko antzerki taldeak antzezlan bat eskainiko dau.

22:00 Rock kontzertuagaz amaituko da eguna. Asmo Txarrak, Piztiak eta Nok taldeek joko dabe.

## II. GAZTE TOPAKETAK

ONDARROAKO HAIKA GAZTE ERAKUNDEA

### «Gazte mogimendua barriro biztu nahi dogu»

L.B. |

Ondarroako Haika gazte erakundeak topaketak antolatu ditu asteburu honetarako eta hurrengorako. Helburua da gazteen burukominen ganean hausnartu eta taldeen arteko hartu-emonak sakontzea.

#### ■ Zelan bururatu jatzue topaketak antolatzea?

Ondarroan eztabaidak antolatu genduzan, ikusteko zeintzuk diran gazteen ardura nagusiak. Hortik hiru gai garrantzitsuenen ganean hausnar egiteko premia nabarmendu zan, eta zer hobeto gazteen arteko topaketak antolatzea baino.

#### ■ Zein da gaurtik aurrera martxan jarriko dozuen egitaraua?

Topaketak institutuan izango dira. Arratsaldeko 18:00etan irakaskuntzaren ganeke eztabaida izango da, eta gaua bertan pasa eta gero, bihar beste gai biren ganean egingo dogu berba: bizi baldintzen inguruan goizeko 10:30etik aurrera eta Ondarroako gazte mugimendua ganean arratsaldeko 16:30ean.

#### ■ Zeintzuk dira bete nahi dozuezan helburuak?

Gai horreen ganean hausnar-

tu nahi dogu, baina horrezaz ganera herriko gazteen mogimenduari sakada be emon nahi deusagu, aspaldian nahiko makal dabil eta. Beste alde batetik, gazte taldeen arteko hartu-emonak indartu gura dogu.

#### ■ Hortik datorren asteburuan antolatu dozuezan olinpiadak...

Bai; danetara 15 talde dagoz deituta. Tartean kultur taldeak, koadrilak eta lokaletan batzen dan jentea. Onenek tarta, txanpaina eta sopresa eroango dabe.

#### ■ Ez da lehenengo esperientzia, ezta?

Orain dala lau urte Jarraik antolatu eban gazte topaketa. Orduan modura, futbito, herri kirolak, aulki-jokoak eta beste gauza batzuk egongo dira, goiz eta arratsaldean. Amaitzeko, kontzertua izango da 23:30etik aurrera frontoian, Deus ez, Ekintza eta Anestesia taldeekin. Sarrerak Txokoan, Anaitasunan eta

### HELBURUA

«Gazteen arteko hartu-emonak sakontu gura doguz topaketen bitartez»



NEKANE AKARREGI

Haikak egitarau zabala prestatu dau datozen asteburuetarako.

### AGENDA

#### ETXEBARRI

**Berbaldia:** Gure sustraiak gaiaren ganean. Alfonso Martinezek emongo dau berbaldia. Iluntzeko 20:30ean Udaletxeko aretoan. EHk antolatuta.

#### LEKEITIO

**Txotxongilo artegintza erakusketa:** Barandiaran Aretoan Corrado Masacciren txotxongiloak, 18:00etatik 20:00 etara.

#### Kabauako eskaintza: Iluntzeko

20:00etan zine kluba. Gauean Ibon ibiliko da musika ipinten.

#### ONDARROA

**Antzezlanak:** *Aguamarga especial sopas*. Gaueko 22:00etan Bide Onera zinemaren, Bilboko Totum taldearen eskutik. Udal Emakume Batzordeak antolatuta. Komeria kritikoa.

#### Ondarroa Hiria I. Rock lehiaketa:

Gizarten Baneteuanba taldea, 23:00etan.

### DATUAK

#### ‘Zer esana’ aldizkaria

**Gaiak.** Kultura, Kirola, Politika, Gizartea, Euskera, Herritarren Zer Esana, Irakaskuntza, Editoriala eta Denporapasak.

**Orrialdeak.** 40-50.

**Salneurria.** 350 pezeta aleko. Harpidedunentzat, 1.200, urtean.

**Salmenta lekuak.** Egunkari eta liburu dendetan aurki leiteke.

**Urtean, zenbat.** Lau.

**Ale kopurua.** 300.